

Ezkerra bidegurutzean



Gorka Moreno
Márquez
EHU-KO IRAKASLEA

Azken hamarkadatan ezkerren barruan gertatzen ari dena “iraultzailea” da. Bere baitan topa dezakegun perfil soziologikoen arteko aurkakotasuna oso nabarmena da. Alde batetik, balio posmaterialistetan –labur esanda: feminismoa, ekologismoa, arrazakeriaren aurkakoa eta abar– oinarritzen den taldea dugu, gehienetan klase ertainetan kokatzen dena eta egoera sozioekonomiko eta ongizate altua duena. Bestetik, *globalizazioaren galtzaileak* ditugu, jende prekarioa, askotan langile arruntak, azken urteetan euren egoera okerrera egin duela sumatzen dutenak eta gizarte zaurgarritasunean daudenak.

Nolabaiteko *neurotikoen koalizio* baten aurrean gaude. Izan ere, gehienetan batzuen eta besteen ikuspuntuak ez dute bat egiten, eta sarritan kontrajarriak dira hainbat gaietan. Immigrazioaren edo errefuxiatuen gaien kudeaketa adibide ezin hobea da, baina ingurumenaren arloan edo beste zenbait kasutan oso nabarmen ikus daiteke kontrakotasun hori. Bestera esanda, historikoki ezkerren eremu ideologikoan kokatu diren langileak ditugu; bestetik, azken hamarkadatan gizartearen gorantz egin duten langile hauen seme-alabak dira. Bi talde oso ezberdinak, baina eremu ideologiko berekoak.

Frantziako hauteskundeak errealitate honen adibide hobeena izan dira. Marine Le Pen ultraes-

kuindarra eta Emmanuel Macron zentrista bigarren itzulian lehiatu dira. Gainontzeko alderdiek lehenengo egunetik Macronen alde egin dute, batek izan ezik. *France insoumise* mugimendua, botoen ia %20 lortu duena, tarteko ekidistantzia mantentzen saiatu da. Frantzian eman diren azterketa soziologikoen arabera, langile galtzailearen botoa Frantzia Intsumisioa eta Fronte Nazionalaren artean banatu da lehenengo itzulian. Lehenengo mugimendu politikoaren buru Mélenchonek oso ondo daki hori eta ez du esparru soziologiko hori libre utzi nahi izan Le Pen-entzat. Hautua nahiko zalantzagarrria ere bada, epeltasun honen bidez Le Penen nolabaiteko legitimazioa eman delako eta orain arte eman den harresi demokratikoan zirrikituak agertu direlako.

Mugimendu taktikoak alde batera utzita, errealitate horrek eskema tradizionalak erabat lehererrarazi ditu. Testuinguru horretan ezkerrek ez du batere garbi zer bide jarraitu, eta hartzen duena, bata edo bestea izan, beti galtzaile aterako da. Orain arte bezala, klase ertain aurrerakoen ikuspuntua soilik defendatuta, ultraeskuinarentzat *hauteskunde autobidea* irekitzen zaio, Frantziako Alderdi Sozialistaren (PS) emaitzak begiratzea baino ez dago. Baina, jende prekarioaren alde eginda ultra-eskuinarekin lehia zuzenean sartzen da eta zenbaitetan ezkerrean oinarri izan diren balore batzuen aurrean kokatuko lirarteke. ■

Zapatak



Itxaro Borda
IDAZLEA

Iragan astean, mendiko zapata berriak erosi ditut, izendatuko ez dudan kostalde oparo honetako kirol denda batean. Ez naiz alpinista, ez naiz itsuki gailurren lehian dabilen horietarik ere, maldetan gora eta behera ibiltzea maite duen hiritar hutsa baino: gustatzen zait hatsak nola urratzen dizkidan birrikak, demagun Larrunen hondar malkarretan ernatzen naizenean. Iparla, Okabe eta Ehüjarre erantsiz osatzen dut nire ton-tor lauko kuttuna.

Zapata onak behar ditut, hala ere. 2007an eskuratu nituenek denboraren buruan behatzak dolorez gorrituak uzten dizkirate, hertsiegiak baitira nonbait eta azken aldian

Baiguratik lasterka jaistean, ezkerreko oineko hatzetatik bat ubelduraz beltzatu zitzaidan. Aldaketarik ez nuen egin 2012an, ez dakit orain zergatik.

Garrantzitsuak dira oskiak, maitaleak eta aukerartzen ditugun lehendakariak bezain. Oinetakoetan, erosotasuna hobesten dut hautua egiteko orduan. Oinak aske sentitu behar du, hegietan minik nabaritu gabe, arintasuna, zabaltasuna eta aniztasuna biderkatuz eta bermatzeko gai izan patarra gogortzen denean. Zango punta, izpiritua bezala, ez da itxikeria, tepu edo usain txarretan kartzelatzen ahal.

Beste bost urteren bakea ziurtatu dut. ■